# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LEHENDAKARITZA

**574**

Martxoaren 29ko 50/1983 DEKRETOA, Jaurlaritzako Sail batzuk ezabatu eta agintepideak banatuz.

Jaurlaritzaren Legeko 8garren Atalak, a) zatian, Lehendakariari, Jaurlaritzako Lehendakari denez, honako ahalmen hau ematen dio: "Jaurlaritza-Sailak sortzea edo ezabatzea dakartzaten Dekretoak ematea, herri-xahupideak gehitzea ekarri ez dezatenaren baldintzapean, eta bai Sailen izenen edo aginte-eremuen banaketaren ezein aldaketari buruzkoak ere".

Autonomia-Elkartearen erakundetze-bideak, Autonomia-Estatutoaren 3garren Atala eta honi datxezkion besteak egiteratuz, eta Jaurlaritzari dagozkion egitekoen erazko birrantolapenak, komenigarri egiten dute honako hau: Kultura eta Hezkuntza-Sailei, hurrenez-hurren, zegozkien agintepideak birbanatzea, herri-arazoen behar bezalako eraentza bermatzeko.

Hori dela eta, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*Lehenengo Atala.*—Eusko Jaurlaritzako Kultura-Saila eta Hezkuntzakoa ezabatu egiten dira.

*2garren Atala.*—Hezkuntza eta Kultura-Saila sortarazten da, Pedro Migel Etxenike Landiribar Jaun Txit Gorena dela bertako Sailburu. Ezabatu diren Hezkuntza eta Kultura-Sailek orduarte zituzten agintepideak Sail berriari atxikita geldituko dira, hurrengo atalean esaten denaren kaltetan gabe.

*3garren Atala.*—Gizarte-Adierazpideei buruz Kultura-Sailak zituen agintepideak Lehendakaritzako Idazkaritza-Sailari atxikita geldituko dira, Sail honek bere izenari eutsiz.

*Azken Erabakietako Lehenengoa.*—Dekreto honetan agintzen dena betetzeko beharrezko ezeztapen eta eskuraketak egingo ditu Ekonomia eta Herriogasun-Sailak.

*Azken Erabakietako Bigarrena.*—Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteizen, mila bederatzirehun eta larogeita hirugarreneko Martxoak hogeita bederatzi.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

## PRESIDENCIA

**574**

DECRETO 50/1983, de 29 de Marzo, de extinción de departamentos y distribución de sus competencias.

El artículo 8 de la Ley de Gobierno en su apartado a) atribuye al Lehendakari, en su condición de Presidente del Gobierno, la facultad de "dictar Decretos que supongan la creación o extinción de Departamentos, siempre que no suponga aumento del gasto público, así como cualquier modificación en la denominación o en la distribución de competencias entre los mismos".

El proceso de institucionalización de la Comunidad Autónoma en desarrollo del artículo 3 y concordantes de su Estatuto de Autonomía y la conveniente reordenación de las funciones que corresponden al Gobierno, aconsejan proceder a una nueva distribución de las competencias que correspondían a los Departamentos de Cultura y Educación respectivamente, a fin de garantizar una adecuada gestión de los asuntos públicos.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.º*—Quedan suprimidos los Departamentos de Cultura y Eduación del Gobierno Vasco.

*Artículo 2.º*—Se crea el Departamento de Educación y Cultura cuya titularidad corresponderá al Excmo. Sr. D. Pedro Miguel Etxenike Landiribar, quedando adscritas al nuevo Departamento todas las competencias que venían desempeñando hasta el presente los extinguidos Departamentos de Educación y Cultura, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo siguiente.

*Artículo 3.º*—Las competencias sobre Medios de Comunicación Social que venían atribuidas al Departamento de Cultura, quedan adscritas al Departamento de Secretaría de Presidencia que mantiene su actual denominación.

*Disposición Final Primera.*—El Departamento de Economía y Hacienda realizará las supresiones y transferencias necesarias para dar cumplimiento de lo dispuesto en el presente Decreto.

*Disposición Final Segunda.*—El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a veintinueve de Marzo de mil novecientos ochenta y tres.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

## EKONOMIA ETA HERRIOGASUN-SAILA

**575**

Otsailaren 28ko 51/1983 DEKRETOA, "Kasino eta Diru-jokoak" delakoaren alorrean, Erresumagandik agintepide eta/edo zerbitzu berriak hartu izanaren ondorioz, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen 1982.erako epeaz luzatutako Diruegitamuan eskuarte-izendapenak sartzeari buruz.

## DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y HACIENDA

**575**

DECRETO 51/1983, de 28 de Febrero, sobre incorporación de créditos en el Presupuesto de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1982, prorrogado, en virtud de la asunción de nuevas competencias y/o servicios procedentes del Estado en materia de Casinos y Juegos.